

KONTROL OFIZIALEKO PROGRAMA BAKOITZAREN AUDITORIA-TXOSTENA: 2016/2020KO PNCOCA

2016. URTEA

EAE

1. Programatutako helburuak zenbateraino bete diren neurtzea

SANDACH establezimenduetako eta garraioko SANDACH-en kontrol ofizialeko Programari buruzko auditoria garatzea zen EAEko 2016-2020ko Auditoria-programaren helburua 2016. urterako. Auditoria-lanak 2016ko uztailean hasi ziren, hain zuzen, 2017ko apirila eta maiatza bitartean amaitzea aurreikusten zuen auditoria-egutegiaren eremuan. Horri dagokionez, programazio hori bete nahi da bat ez etortze operatiboetatik etorritako atzerapenik izan gabe.

Gaur egun, beharrezko auditoria-txostenak ari dira idazten; hortaz, behin-behinekoak dira txosten honetan jasotako balorazioak.

2. 2016an egindako auditorien emaitzak

Oro har, hauei dagozkien SANDACH establezimendu eta garraioetako SANDACHeko kontrol ofizialeko Programari buruzko auditorian hautemandako desbideratzeak: lehendik zeuden koordinazio eta lankidetzako mekanismoak, kontrol-programak aplikatzea, kontrol-jarduerak eta prozedurak gainbegiratzeko sistema aplikatzea, eta zehapen-araubidea aplikatzea.

3. Ekintza plana eta hartutako neurriak ikuskatutako unitatean

Bukatu gabe dagoenez, egiteke dago oraindik. Hala ere, auditoriak islatutako zenbait alderdi hartu dira kontuan 2017ko Kontrol-programa egitean.

4. Azterketa independentea egitea eta haren emaitzak

Ez da egin

5. Egindako auditorien balorazio orokorra. Auditoria-emaitzetan oinarritutako kontrol ofizialen eraginkortasun- eta efizientzia-maila ebaluatzea

SANDACH establezimendu eta garraioetako SANDACHeko kontrol ofizialeko Programaren koordinazio eremuari dagokionez, koordinazio-jarduerak daudela egiaztatu da; eta haien eraginkortasuna indar daiteke irizpide homogeenak definitzean eta ezartzean, baita legegintzako koordinazio teknikoan ere.

Horretaz gain, onargarritzat jo daiteke SANDACH establezimendu eta garraioetako SANDACHeko kontrol ofizialeko Programan egindako kontrol ofizialen eraginkortasun-maila ebaluatzea. Hala ere, kudeatze eraginkorreko eta teknikoko alderdiak badaude, zeinak hobetu daitezkeen integrazio eta koordinazio-maila egituratuago batetik hasita.

Kontrolako prozedura dokumentatuak dauzka, eta egiteko eta berrikusteko dinamika ere hobe daiteke, erreferentziazko elementu homogeenak eta integratuak edukitzeko.

Gainbegiratzeko sistema aplikatzean, ez da egiaztatu, maila globalean, garatutako jardueren eraginkortasuna bermatuko duen sistematika formalik. Alderdi horri dagokionez, hainbat ekintza hartu dira dagoeneko, hura zuzentzeko.

Zehapen-araubidea dagoela egiaztatu ahal izan da.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko martxoaren 30a

**Ikerne Zuluaga Zamalloa
DIRECTORA DE AGRICULTURA Y GANADERÍA
NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZA ZUZENDARIA**